



EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ULMA Taldeko berripapera 9 zk.

Testigantzak

Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?



Amaia Billar. ULMA Manutentzio zerbitzuak.

“Gehienbat ni nire inguruan euskaraz bizi naizelako eta euskararen erabilera gehitzea eta normaltzea gustatuko litzaidakeelako, baita Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzeko balio dezakeelako ere”.



Xabi Calvo. ULMA Eraikuntza.

“Euskara dut ama hizkuntza eta euskaraz bizi nahi dut lanean ere. Euskaraldiak euskaraz egin ahal izanda, erabiltzen ez dudan egoera horiek identifikatzen dizkit eta horiek aldatzeko aukera eman ere. Euskarak merezi du, gurea da, guk ez badugu erabiltzen, nork egingo du? Horregatik guztiagatik eman dut izena”.

Eguneko datua

68

2020-2021 ikasturtean **ULMA** Taldean euskara ikasteko izena eman duen ikasle kopurua

Pandoraren kutxa

Abenduaren 4tik 8ra Durangoko liburu eta disko azoka.

<https://www.durangokoazoka.eus/eu>



emun

13. eguna